


WALLUK

② BIDAIA HANDIA

Ana Miralles · Emilio Ruiz



ASTIBERRI



EGUN HARTAN, ESKIMOK
KOSTALDERA JO ZUEN, ETA
LUZAROAN GERATU ZEN
ZERUERTZARI BEGIRA, ISILIK.




IPARRALDERAGO
JOAN BEHAR DUGU.
HAN TOPATUKO DITUGU
FOKAK EHIZATZEKO
ZULOAK.




BAINA OINEZ
JOANGO GARA,
EZTA?









INGURURA BEGIRATU, ETA
HOTZIKARA SENTITU ZUEN
MUTURRETIK ISATSERAINO;
EZ ZEN BELDURRA,
BAKARDADE LATZA BAIZIK.





















ESKERRIK
ASKO, WALUK. TXIKIA
ZARA, BAINA OSO
INDARTSUA.

ORAIN EGIN LO.
INDARRA HARTU
BEHAR DUGU
FOKA HORI
EHIZATZEKO.



IZOTZ-PUSKA EROSO
HARTAN BIDAIA LUZEA
EGIN ONDOREN, ITSASOA
TRINKOTZEN HASI ZEN.
IZOTZ ZATIAK AZALTZEN
ZIREN EZEREZETIK,
TAMAINA ETA MOTA
GUZTIAKOKAK, GERO
ETA GERTUAGO.



HARIK ETA HAIEN PUSKA
TRABATUTA GERATU
ZEN ARTE, ELKARREN
KONTRA TALKA EGIN
ZUTEN BESTE IZOTZEN
ARTEAN.



FOKEN
ARNASLEKUREN
BAT EGON BEHAR
DU HEMENDIK.


ONDO
ERREPARATU.
EZKUTUAN
EGOTEN DIRA,
EZ DIRA ERRAZ
IKUSTEN.



ESKIMO, EZ DUT
ZULORIK IKUSTEN
BAINA USAINA...

HARA!!

?





ALDE HEMENDIK,
ZUEK AKABATZEA NAHI
EZ BADUZUE!



EZ JO, EZ DIZUT
MINIK EGIN NAHI!

ZURE BALEATZAR
HORREN ZATITXO BAT
BAINO EZ DUGU NAHI.

INOLA
ERE EZ!



BALEA HORI NIREA
ETA NIRE KUMEENA DA,
ETA EZ DIZUET UTZIKO
ZUEN MUTUR ZIKINAK
HURBILTZEN!

ADITU
DUZU?

BAI. ZUENA
DA OSORIK.



BAINA, BALEA
HORREKIN, NANOOK
HARTZ HANDIA BERA
ASEKO LITZATEKE.

